



176

ALEA

arabako aldizkaria

**AURREKOA UTZI ETA URTE BERRIARI
EKITEKO GARAIA**



Denon gustuko Gabonak



JAIOZA

IZOTZ PISTA

GABONETAKO MERKATUAK

EGUBERRIETAKO HAUR PARKEA

ANTZERKIA eta HAUR IKUSKIZUNAK

OLENTZERO ETA MARI DOMINGIREN ETXEA



ALEA 176

2018-12-21 OSTIRALA

AZALEKO IRUDIA:

LEIRE SANCHEZ

Aurkibidea

- 4 **Sakonean:** Gabonetako artisautza azoka Gasteizen.
- 8 **Protagonista:** Carlos Ortiz de Zarate etnografoa.
- 12 **Iritzia:** 'Pausa', Edu Zelaieta Anta.
- 13 **Iritzia:** 'Narrazioak', Oihan Txabarri.
- 15 **Sarean:** #Bbt18.
- 16 **Gizartea:** Atauriko meatzea birgaitzeko proiektua.
- 18 **Ekonomia:** Grebara joko du Biocompostek.
- 19 **Gizartea:** Talka espazio feminista.
- 20 **Esanak eta datuak.**
- 21 **Laburrak.**
- 22 **Gizartea:** Eguberriko Haur Parkea.
- 24 **Kultura:** Aintzane Agirrebeñari elkarrizketa.
- 26 **Sexualitatea:** 'Besteen faltak aurrean', Emaize.
- 27 **Teknologia:** 'Denda txikiei babesak'. Arrate Sanchez.
- 29 **Irakurleen txokoa.**
- 30 **Agenda.**

Bultzatzaileak



berria goiena

Argitaratzailea

Arabako Alea Komunikazio Taldea

Zuzendaria

Aritz Martinez de Luna

Erredakzioa

Anakoz Amenabar

Miriam Biteri

Esti Lanao

Estibx Ugarte

Juanma Gallego

Komertziala

Erlantz Anda

Inprenta

GERTU inprimategia

Tirada: 4.000 ale

EGOITZA NAGUSIA

Eskola kalea 10, 7. bulegoa

01001 Gasteiz (ARABA)

Tel.: 945 71 60 09

info@alea.eus

PUBLIZITATEA

publizitatea@alea.eus

Tel.: 695 63 28 62

HARPIDETZA

harpidetza@alea.eus

Tel.: 945 71 60 09

Lege Gordailua: VI-32-2015

ISSN: 2386-8961

Asteko kolaboratzaileak: Oihan Txabarri, Edu Zelaieta Anta, Arrate Sanchez eta Emaize.

ALEAk ez ditu bere gain hartzen IRITZIA saillean edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

Laguntzaileak



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

*Araba da
erronka*



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

Lan Ta Lan, artisaunen erakusleihoa

Urtero moduan, Gasteizko Probintzia plazan jarri dute Gabonetako XXII. Artisautza Azoka. Denera, larru, zeramika, beira, zura, brontze, janzteko arropa edo xaboi eta kosmetikoz betetako 26 salmahai egongo dira ikusgai urtarrilaren 6ra arte; horien erdia, artisau arabarrenak dira.

Testua eta argazkia: **Mirian Biteri.**

Ziurrenik asko izango dira oparixoren bat edo beste azken ordurako uzteko ohitura dutenak. Zorte onekoak dira horiek, Gasteizko Probintzia plazan dagoeneko zabalik dagoen Lan Ta Lan Gabonetako artisautza azokan kalitatezko askotariko produktu bakarrak topatuko dituztelako. Besteak beste, ehungintza, beira, larrugintza, bitxigintza, papera, zura, papera, brontze, argiteria, buztingintza edota kosmetikarekin lotuta Artisauk, Arabako Artisau Elkartek, aurten jarritako 26 postutan denetarik aurkituko dute urtarrilaren 6ra arte.

Sonia Sanz Diez artisauak urteak daramatza erakusleihan parte hartzen eta baita antolatzen ere; azokak berak 22 urte betetzen ditu aurten. Azaldu du bertan parte hartzen dutenen erdia arabarrak direla; zehazki, artisautza ogibide duten eta elkarteko kide diren arabarrak. Baina, azpimarratu du "jatorriari eta produktuen jasangarritasunari" ez ezik, kalitateari ere "lehentasuna" ematen diotela azokako parte-hartzaileak aukeratzerako orduan, eta horregatik inguruko herrialdeetatik zein Espainiatik iritsitako eskaintza ere badagoela tartean.

Hitzordu garrantzitsua da Gabonetako artisautza azoka, Sanzek nabarmendu duenez, gehienez urte osoko salmenten "%30 eta %40 artekoa" suposatzen duelako; eta, hortaz, asko dira izena ematen



dutenak; aukeratuak, baina, 26 baino ez dira izan. Batzuek salmentei erreparatuta ematen dute izena, eta beste batzuek, berriz, urterako kontaktuak bilatzeko asmoarekin egiten dute; Gasteizko Zapatari kalean Tintatelas tailerra gidatzen duen Charo Gonzalez Molina da horietako bat: "Azoketan saldu egiten da, baina horrez gain, badago jendea interesa agertu bai baino gero ezer erostera ausartzen ez dena. Kontaktua duen txartela ematen diet eta batzuk gerora jartzen dira harremanetan", azaldu du.

Zuzeneko musika

Askotariko artisautza ikusteko aukera emateaz gain, kontzertuak ere topatuko dituzte bisitariak; hain justu, hiru dira aurreikusita dauden emanaldiak: ostiralean, abenduak 21, Aryada taldeak girotuko du azoka; hilaren 28an, Bohemien hirukoteak; eta urtarrilaren 4an, Botxo Boogiesek. Kontzertu guztiak 19:30ean hasiko dira.

Postuetako produktu eta kontzertuekin batera, Arabako Diputazioak deitutako Blas Arratibel artisautza lehiaketa irabazi duten Oier Elorduiren *Sarraila*, Irantzu Ciervideren *Lozen* eta Maria Rosa Abalosen *Jairako prest* lanak ere badaude toki berean ikusgai honako ordutegian: goizean, 11:00etatik 14:00etara; eta arratsaldean, 17:00etatik 21:00etara. Abenduaren 25ean eta urtarrilaren 1ean itxita egongo da. ■■■

Urtero bezala, Gasteizko Probintzia plazan dago artisauen azoka.

**"SALTZEAZ GAIN,
URTERAKO
KONTAKTUAK EGITEKO
ERE BALIO DU
GABONETAKO AZOKAK"**

CHARO GONZALEZ MOLINA

"Araban ez dira aintzat hartzen artisauen azokak"

OIHANA SANTAMARIA JABONERIA DE LA ALMENDRA

Hamaika urte pasa dira Jaboneria de la Almendrak Oihana Santamaria azokan parte hartzen hasi zenetik. Hasierako "ezjakintasuna" gainditu ostean, gaur egun bezeroen eskaerak nondik nora doazen badaki: "Antolatzen ikasi dut, ezagutzen dut eta jendeak nahi duena; bereziki oparitzeko kuxkak eskatzen dituzte azokan; urteari begira, horrek ematen dit aukera produktuak ezagutarazteko: xaboiak, ukenduak edo Añanako gatzak, esaterako", azaldu du. Horren harira, azpimarratu du Artisautik "esfortzu handia"



M.B.

egiten dela tokiko artisauak merkatuan sartzeko.

Araba mailan, Gabonetako artisautza azoka garrantzitsuenetarikoa dela uste du: "Hasieran, banuen azoketara joateko ohitura;

baina, bi kenduta, ez nuen asko saldu. Ez dira aintzat hartzen, eta gainera, birsalmentarekin nahasten dira. Eta horrela, zaila da", esan du. Azokaren bueltan hausnarketa egin beharko litzatekeela uste du: "Gaur egungo azoka askok zirkua ematen dute, eta horrek jendea nahasten du. Bultzada eman behar zaie benetako azokei", aipatu du.

Horrekin batera, erakundeen "inplikazioa" eskatu du; esaterako, Gabonetako azokan partu hartu ahal izateko elkarteak azken zortzi urteotan eman dituen hasiberrientzako bekak lagunduz.

orain presoak



AUTOBUS ZERRENDAK OHIKO LEKUETAN

LAUTADA

AIARALDEA

GASTEIZ

AÑANA

ERRIOXA

GORBEIALDEA

MENDIALDEA

manifestazioa

urtarrilak 12 · Bilbo-Baiona
17:00 · La Casilla

GABONETAN OPARITU

artepan



PANETTONE
PANETTONEA



TURRÓN TRUFA DE COCO
— KOKO-TRUFAZKO TURROIA —



LICORERAS
— LIKORE-ONTZIAK —



TURRÓN YEMA
— GORRINGO TURROIA —



MANTECADO DE ALMENDRA
— ALMENDRAZKO MANTEKATUA —



TURRÓN VASCO
— EUSKAL TURROIA —



TRUFAS
— TRUFAK —

"Arbasoak gurera ekartzeko modua dira Gabonetako usadioak"

CARLOS ORTIZ DE ZARATE APAIZA ETA ETNOGRAFOA

Usadio eta istorio ugari bildu ditu Carlos Ortiz de Zarate ikertzaileak Araban zehar, jakin-mina bete eta bizitzan aurkitu dituen hainbat galderei erantzuna aurkitzen saiatzeko. Horien artean, eguberrietako ohiturek berebiziko garrantzia dute: besteak beste, ahulduta dagoen mundu naturalaren berriztapena dakarte. Testua eta argazkiak: **Juanma Gallego**.

Leku batetik bestera ibilitakoa da Carlos Ortiz de Zarate (Domaikia, 1959), eta egon den toki guztietan aurkitu du jakin-mina piztu dion istoriorik. Kontakizun horiek hainbat artikulua eta liburutan jasotzeaz gain, lekuan lekuko usadioen azalpen bat aurkitzen saiatu dela dio. Zeregin horretan dabil oraindik.

Zerk eraman zintuen etnografiara?

Apaizak, hein handi batean, nomadak gara, eta niri leku askotan egotea egokitu zait: Artziniega, Legutio, Araia, Izarra, Langraiz... Behin leku berri batera iritsita, bertako tradizioak eta ohiturak ikusten dituzu, eta horrek interes bat sortzen dizu, halabeharrez. Bestetik, konturatu nintzen Bizkai eta Gipuzkoari buruz asko idatzita zegoela, eta baita Nafarroari buruz ere. Baina, Arabaren kasuan, oso ikerketa gutxi zegoen. Horregatik hasi nintzen usadio horiek jasotzen, Aunia, Askegi edo Urtume bezalako aldizkarietan.

Aunia desagertu da, baina Askegi eta Urtume mantentzen dira. Zaila al da horiek aurrera eramatea?

Zinez zaila da, baina, era berean, oso lan atsegingarria da. Iruña Okako Askegi aldizkarian lehen hastapenak egin genituen, oso modu

xumean, eta dagoeneko 12 ale daramatzagu. Gero esperientzia hori Zuiara eraman genuen, Urtume sortuta. Horrek ere 12 ale bildu ditu jada.

Nolakoa da hau lortzeko egiten den landa lana?

Batez ere ahozko tradizioa bildu dugu. Apaiz izateagatik, jende askorengana iristeko abagunea izan dut, gure zeregin nagusia jendearekin egotea baita. Horri interes etnografikoa gehitzen badiozu, erraz ateratzen da kontua: nik ez ditut informazio horiek bilatu behar, eskura ditudalako. Agure bat baldin badator, galdetu egiten diot herrian hau edo bestea nola egiten zuten; horrek aukera ematen dizu istorioen ñabardura berriak jasotzeko. Edadetuei asko gustatzen zaie haurtzaroko garaia gogoraraztea, eta gogo handiz kontatzen dizute dena.

Apaizek informatzailearen konfiantza aurretik irabazita duzue, beraz...

Bai, baina gu, batez ere, ikasle gara, eta beraiek irakasle. Adibidez, Kuartangon zortzi urtez egon nintzen apaiz, eta bertan Caritaseko hiru talde genituen. Hiru monitore ginen, eta bakoitzak talde horiekin lan egiteko modu bat zuen. Nik beti eskatzen nien istorioak kontatzea. Zoragarria zen Eguberriari buruz edo Aste Santuari buruz gauzak



ikastea. Leporatzen zidaten beti koadernoarekin ibiltzen nintzela; baina, gero, haiek kontatutako istorioak biltzen dituen liburua argitaratu nuenean, poz-pozik jarri ziren, ikusten zutelako informazio hori guztia jada ez zela galduko.

Kuartangori buruzko liburua aipatu duzu, baina beste hainbat liburu idatzi dituzu ere....

Bai, eta liburu horietako bakoitzak bere izaera propioa du. Ihauteriei buruzko liburuaz gain, Gorbeiarri eta Erriberagoitiari buruzko liburuak idatzi ditut. Azken honen kasuan, herrian aldizkari bat ateratzen zuten, baina gero egitasmoa agortu egin zen, idazteko prest zegoen jenderik aurkitzen ez zutelako. Udalari proposatu nion kondairak liburu batean jasotzea, baina horien inguruan zegoen testuingurua ere bildu nahi izan nuen. Liburua osatzeko agiri asko topatu nituen, tartean, altxor txiki bat ere.

Zein altxor zen hori?

Liburuan lanean ari nintzela, agure batek esan zidan ganbaran paper pila bat zuela bilduta, eta egun batean sutan bukatuko zirela. Plastikozko zaku bat erakutsi zidan, agiriz beterikoa. Zur eta lur geratu nintzen: agiri horien artean, batek jasotzen zituen inbasio napoleonikoak

eskualdean izan zituen ondorioak. Bertan zioten, besteak beste, herritarrek zerga pila bat nozitu behar zutela, eta batzuk mendira alde egiteko zorian izan zirela. Hau bezalako material asko egon behar da oraindik esku pribatuetan.

Ikertzailearen rola alde batera utzita, nola oroitzen dituzu haurtzaroko eguberriak?

Maitasun askorekin, familia giroko egunak zirelako. Zentzu erlijiosoa alde batera uzten baduzu, egun hauetan familia baino ez da geratzen, eta hori kenduta ere, akabo. Baina festa hau modu egokian bizi duten familien kasuan, guztiz zoragarria da, eguberriak elkartzeko gune bat bihurtzen direlako. Bestalde, fantasiaz betetako mundu bat sortzen da, ametsak posible egiten direnekoa. Munstroak eta pertsonaia bereziak agertzen dira. Horietako bat da, adibidez, begi asko dituen gizona. Araban, ia leku guztietan lokalizatuta daukat pertsonaia hori. Ume txikiei zera esaten zieten: urteak dituen egunak baino begi gehiago dituen gizona iritsi behar zela herrira. Agure batek kontatu zidan hori entzutean bus geltokira joan zela, eta hor geratu zela itxaroten bizpahiru orduz. Herrira norbait iristekotan, busean etorri behar zelako, noski!

Beldurgarria ote da hori, koko baten antzekoa?

Ez, ez da berez gaiztoa, bitxia baizik. Egutegiari lotutako munstroa dela esango nuke, urtearen adierazlea edo. Beste leku askotan ere bada antzekorik. Katalunian, adibidez, begiak beharrean, sudurrak ditu.

Zure ustez, zein izango litzateke eguberrietako usadiorik adierazgarriena?

Gabonetako enborra dela esango nuke. Baina ez gure artean bakarrik, Europa osoan baizik. Baserriko sukaldean enbor bat sartzen zuten Gabon-gauean, eta gutxienez Gabon zahar gauera arte mantentzen zuten sua piztuta. Gero, ura botatzen zioten, eta ateratzen zen lurruna etxe osoan zehar barreiatzen zuten. Behin itzalita ere gordetzen zuten enborra, eta, herri batzuetan, urtean zehar erabiltzen zuten; adibidez, ekaitzak uxatzeko. Erre-pui-errea ere nabarmenduko nuke, batez ere Lautadan: Gabon zaharrean ardo zahagi zahar bat erretzen zuten, eta gero herrian zehar eramaten zuten, purifikazio elementu bezala.

Halako usadioek zer adierazi nahi dute sakonean?

Konbentzituta nago erritu hauek gehienetan naturaren izpiritua adierazten dutela. Jadanik ahulduta dagoenaren erakusle dira, urte berriarekin batera berriztu beharra dagoenaren seinale. Askotan esaten da, adibidez, erretzen diren lastozko gizakiak gaiztoak direla, baina ez da horrela, ez dira pertsonaia gaiztoak. Berez, desagertu behar dira ahulduta daudelako, eta aro berri bati tokia utzi behar diotelako.

Ogia ere babesletzat hartu izan da Gabonetan, ezta?

Bai. Gabon-gaueko afarian, ogi puska bat hartzen zen, eta mahai-zapiaren azpian mantentzen zen. Urtean zehar gorde egiten zen, eta amorrua zuten txakurrei ematen zioten, adibidez. Urtearen zikloa

amaituta, leku batzuetan, ogi horrekin zopa egiten zuten, eta etxeko guztiok jaten zuten.

Tradizio hauek jarraipena izango al dute? Ba al dute zentzurik?

Baietz esango nuke. Behin batean, San Juan egunean, Altsasun ikusi nuen ateetan iratzea botata zutela, eta Aramaion ere ikusita daukat. Horrek zer edo zer adierazten du. Nire ustez, jendea hainbat ohitura berreskuratzen ari da, seguruenera identitatea mantentzeko, mundu globalizatu baten kontrapuntu bezala. Kanpotik datozen usadioak xurgatzeko joera dago ere, baina, aldi berean, herri bakoitzaren nortasuna mantentzeko modua da, haizeak eramaten duen luma ez bihurtzeko. Bestalde, arbasoak gogoan izateko modua da ere. Eguberrietan amonak ardo beroa egiten bazuen, ohitura hori berreskuratzea amona omentzeko modua izan daiteke.

Erantzunak aurkitu al dituzu landa lanean?

Horien bila ari naiz beti. Kontua ez da da soilik datu etnografikoak hartzea, atzean dagoena azaltzen saiatzea baizik. Imajinatu apaiza zarela, eta, herri batera iritsita, esaten dizutela: "Santuaren garezurraren barrutik ura igaro behar duzu. Ur hori santutzat hartzen da". Eta zuk, noski, hasiera batean ezetz diozu, badakizulako hori erritu paganoa dela. Baina, halere, egin behar duzu, bestela ia-ia harriak botako dizkizute eta. Honekin esan nahi dut tradizioak pisu handia duela, eta askotan ezin daiteke joan horien aurka. Beste behin, herriko jaietan, soroen bedeinkapena egin behar zen. Badakizu: iparralde, mendebalde, hegoaldea eta ekialdea. Nik horri ez nion zentzu gehiegirik ikusten, eta proposamen bat egin nien herrikoei. "Ea, hemen gaudenon artean, dagoeneko inor ez da bizi nekazaritzaz, eta agian hobe da Jainkoak gu bedeinkatzea, soroak beharrean". Halako bedeinkapen bat inprobisatu nuen momentuan. Baina, bukatzean, herriko lagun bat gerturatu zitzaidan eta zera esan zidan: "Tira, Carlos, hau guztia oso ondo dago, baina, arren, badaezpada ere, bedeinkatu itzazu soroak ere!". ■

"HAINBAT USADIO BERRESKURATZEN ARI DIRA ORAIN, SEGURUENERA IDENTITATEA MANTENTZEKO"





**ITURRIETA
SAGARDOTEGIA**




Bº Arraga, 2 / Aramaio
 ☎ 945 44 53 85 / 685 72 15 93
 jj.iturrieta@Yahoo.com
 iturrietasagardotegia.blogspot.com.es



TXOTX EGIN!!



Servicio de autobús
TREBIÑU Sagardotegia
 ☎ 945 244 852-657 736 599 · ASKARTZA-TREBIÑU



Kuartango
 SAGARDOTEGIA

Servicio de autobús
 Zuhatsu-Kuartango 21
 t.699 747 730 · 945 362 683



Arabán,
arabako sagardoa!

Pausa



EDU ZELAIETA ANTA
IDAZLEA ETA IRAKASLEA

Pausa dakarren oro, dela jarrera orokorra, dela ekintza zehatza, erresistentziatzat har dezakegu gaur den egunean; erresistentzia, hitzaren zentzurik literalenean. Izan ere, gero eta zailago gertatzen zaigu pausatzea; gero eta ahalegin handiagoak egin behar dira etengabeko mugimenduan ez aritzeko, zurrumbilo ero batean ez erortzeko. Gure bizimoduak gobernatzen dituen inertzia zein den argi dago alde horretatik, eta modako aditzak ez du zalantza handirik uzten: *Go!*

Bi master egiten ari da A. bi unibertsitatetan, eta soldatapeko lanean dihardu astelehenetik ostiralera. Besteak beste, azken boladan famatu diren Master Amaierako Lanak egiteko –bakoitza unibertsitate batean eta zuzendari ezberdin batekin– ez omen du nahiko denborarik. Aldarte txarrean *onartu* ditu A.-k zuzendari batekin egin berri dizkion oharrak lan akademikoa hobetze aldera; helburuetan, baina, ez du inolako duda izpirik: 2019ko ekainean bi masterrak eginak behar ditu. *Bai ala bai.*

Urte batzuk joan dira P.-k telefono adimenduna eskuratu zuenetik eta, beraz, sakelako gailuan whatsapp eta beste sare sozial batzuk erabiltzen hasi zenetik. Zehazki zenbat urte joan diren ez luke seguru-seguru esango. Hark argiago dakusa gailuak ekarritako abantailarik gabe ezingo litzatekeela bizi egun, telefonotik mundu oso bat kudeatzen baitu: deiak, WhatsApp (familiako taldeak, lagunarteko taldeak, laneko taldeak, norbanakoen mezuak), laneko emailak, Twitter eta, gazteek facebook erabiltzeari muzin egin omen dioten honetan, Instagram erabiltzen ere hasia da. Badaezpada, bigarren sakelako (garesti) bat eskatuko dio Olentzerori, telefono bat hondatuz gero bestea erabilgarri izateko edozein unetan.

Hasieran nioen, lagunok: pausa dakarren oro erresistentzia da gaur, erresistentzia aktiboa eta kontzientea. Eta, munduak ez bezala, pausa eskatzen du gure existentziak bi geltoki nagusietan: bizitzan eta heriotzan. ■■■

PAUSA DAKARREN ORO ERRESISTENTZIA DA GAUR, ERRESISTENTZIA AKTIBO ETA KONTZIENTEA



TTipia
Kontratazioa zabalik

DEMODE QUARTET

MUSIKAL
guztiak

IA IA



945243828 ttipia@ttipia-kultura.com

Narrazioak



OIHAN TXABARRI
PUBLIZITATEAN LIZENTZIATUA

Norberaren adina narrazio bat da. Narrazio partekatua, kontuz: besteek interpretatzen dutenak ere pisu handia dauka gure adinaren konfigurazioan, ezin dugu guk bakarrik definitu. Baina ez, adina ez da, berdin dio idazki ofizialek eta munduko NAN eta pasaporte guztiek diotena, zenbaki soilak. Geure adina narrazioa da. Horregatik behar ditugu etiketa eta erreferentziak. Batzuk orokorrak eta aski ezagunak: *Millennials*, *Baby Boomers*, *X belaunaldia*, *gera osteko belaunaldia*. Beste batzuk norberak ezarriak: nik neuk oraindik lehen hezkuntzako mailarekin identifikatzen ditut eskolakide ohiak, balirudike betirako seigarren mailan izoztuta geratu garelako. "A bai, hau bosgarren mailakoa da; beste hura Alberto da, hirugarren mailakoa nire lehengusua bezala; Burgosen Urkorekin egin nuen topo, seigarren B-koa".

Kontua da adina, narrazioa den heinean, ez dela uniforme eta laua. Batzuetan denbora luzetxoa eman dezake aparteko aldaketarik gabe. Beste batzuetan gidoigileek astindua ematen diote eta orduan bai, orduan sentitzen duzu denboraren joana, jaiotze-datak dioena dioela. Kolpe batzuk nabari eta zakarrak dira, gidoilari alfer batek idatziak legez. Maite zenuen norbait galtzen duzu, edo existitzen zela ez zenekien gihar bat bihurtzen zaizu. Beste batzuk sotilak dira, ia ezkutukoak. Zure gurasoen etxe azpiko frutategi zaharrak ixten du, edo nerabezarotik lagundu zaituen musika taldeak utziko duela iragartzen du. Zure hiriko tranbiak hamar urte beteko dituela entzuten duzu, eta zeure artean diozu "nerabea nintzenean ez zen tranbiarik". Arazo handirik gabe identifikatzen duzu zaharruno batek esango lukeen esaldi gisa (akaso mende erdi luze barru balizko biloba batzuei errepikatzeko modukoa), eta orduan esaten diozu zeure buruari baietz, adina narrazio bat besterik ez dela, baina zeu narraztaile nagusi zarenez bazoazela garagardo bat hartzera, pikutara gidoi-aldaketak; eta gaurkoz *off* ahotsa beste batek jar dezala. ■■■

**ADINA EZ DA, BERDIN
MUNDUKO NAN ETA
PASAPORTE GUZTIEK
DIOTENA,
ZENBAKI SOILA**



SAREAN

@ESTITXUUGARTE

#Bbt18

Onintza Enbeitak irabazi du Bizkaiko Bertsolari Txapelketa, eta modu horretan lehen aldiz emakume batek jantzi du txapela. Jon Enbeita Bizkaiko txapelduna izandakoak jarri zion txapela Onintza Enbeita ilobari iragan larunbatean. Txapelduna etxekoez eta zaleez gogoratu zen agurrean, eta plazan jarraitzeko gogoia erakutsi zuen: "Sentiduarazi nauzue/ hain etxekoa, kuttuna/ plazaz plaza bueltau nahi dot/ jaso dodan maitasuna". Sare sozialetan ere zoriondu dute Onintza Enbeita Maguregi bertsolaria. ■■■



ARRATIA N.F.T
@arratia_neskak

Lehen aldia da Bizkaiko Bertsolari Txapelketa emakume batek irabazten duela. ZORIONAK @onintzaenbeita!



KIKE AMONARRIZ
@KikeAmonarriz

Zorionak @onintzaenbeita!!! Lehen ere txapelduna hintzen eta orain txapel eta guzti!! Ez daukan lan makala, gaur merezimendu osoz bildutako maitasun guztia plazaz-plaza itzuli behar badun! Eta zorionak beste zazpioi ere!



EGIZU
@egizu

"Txapelketak aurpegi ona eta txarra biak daukaz", bota zuen Onintza Enbeitak hasierako agurrean. Aurtengoan, txapelarekin eta aurpegi onarekin amaitu zuen, berak irabazi baitu Bizkaiko Bertsolari Txapelketa.



BERTSOA
@bertsolaritza

Onintza Enbeita: "Zenbait gaietan barruak mugitu zitzaizkidan, baina esan beharra neukan". Adierazi du txapela irabazi izana bertsoa lantzen jarraitzeko motibazio handi bat dela beretzat.



ZORNOTZAKO BARNETEGIA
@ZBarnetegia

Segi eguneroko gauza txikiei eta emozioei kantatzen @onintzaenbeita! Gure bertso-afarietan beti ongietorria izango zara, nahiz eta oholtza faltan mahai gainetik abestu behar!

M Mencia
Optika

150 urte
zure ondoan

www.menciaoptika.eus

ZURE NEURRIKO LANBIDE BAT



Ertzaintzan sartzeko deialdi berria.
500 lanpostu 18 eta 35 urte bitarteko emakume eta gizonentzat.
Egin zaitez ertzain. Zure etorkizuna da.

900 840 088
arkauteakademia.eus

EHAA: 2018/12/18

Euskadi, auzolana



Atauriko asfalto-meategi zaharra oso egoera kezkarrian dago. ATAURIKO MEATEGIAK PLATAFORMA

Hitza nahi dute atauriarrek

Aldundiak Atauriko meatzea birgaitzeko aurkeztu duen proiektuari buruz informazioa ez dutelako jaso kexu dira herriko bizilagunak; prozesuan parte aktiboa izateko plataforma bat sortu dute.

ESTITXU U. LZ. DE ARKAUTE ATAUARI

Atauriko meategiaren ingurua birgaitzearen aldeko plataformaren sorrerarekin batera eta Batzar Administratiboaren bi urteko lanaren ondoren etorri da sorpresa: Arabako Aldundia, Eusko Jaurlaritza eta Arraia-Maeztuko Udala proiektu bat lantzen ari dira asfalto-meategi zaharra ingurumenaren eta turismoaren ikus-

puntutik biziberritzeko. Urrian eman zuen Aldundiak egitasmoaren berri, 2019ko aurrekontu-proiektuaren barruan.

Begi onez ikusi dute herritarrek administrazioek zonaldean esku-hartzeko aurkeztu duten asmoa, baina kexu dira planaren inguruko informazioa ukatu zaielako: "Arraroa izan da; Atauri da bertako lur askoren jabe, eta sikiera

horregatik informazioa eman beharko ziguten".

Hortaz, "Atauriko meategiak, atzo, gaur eta bihar" plataforma sortu dute herritarrek, eta proiektuari buruzko iritzia eman nahi dutela azpimarratu dute. Prozesuan parte aktibo izan nahi dute: "Herriak haien garapena diseinatzeko eragile aktiboak izan behar dira, eta garapen hori parte-hartzean oinarritu behar dela uste dugu".

Ibilbide luzea egin du batzarrak

2015. urtean hasi zen Atauriko Batzar Administratiboa aztertzen Compañía de Asfaltos de Maestu enpresak utzitako meategiaren ingurua berreskuratzeko zer aukera egon zitekeen. Izan ere, herrian beti izan dute zonalde horren egoeraren inguruko kezka. "Garantzia eman diogu beti meategiaren zonaldeari, hemengo

jende askok lan egin duelako bertan, eta herriak oso harreman estua izan duelako beti asfalto-fabrikarekin". Hala, ezinegona handia zen herrian ikusirik meategia gero eta hondatuago zegoela. "Egoera nahiko kezagarria da, eraikinak erortzen ari dira, meategien zuloak bere garaian zabortegia bilakatu ziren, denetarik bota zuten bertan..."

Egoera konpontzeko asmoarekin eta eremuaren balioa nabarmentzeko, Batzar Administrazioak Paisaiaren Ekintza Plan baten aurreproiektua egin zuen, gertuko administrazioen atek jotzeko tresna bat izatearren. Plana aurkeztu zuten Arraia-Maeztuko Udalean eta Mendialdeko Kuadrillan. "Gure helburua zen haien bitartez proiektua osatzeko diru-laguntza lortzea, baina erantzuna izan zen ezinezkoa zela, oso zaila zela zerbait egitea".

Tokiko administrazioen erantzun eskasa ikusita, orain dela hilabete batzuk gai honen inguruan interesatuta zeuden Atauriko herritarrak bildu ziren, eta Batzar Administrazioarekin batera talde egonkor bat sortzea erabaki zuten. Azken asteetan sare sozia-



Babesa behar du inguruak. A.M.PLATAFORMA

len bitartez plataformaren berri eman dute, eta horren ondorioz lortu dute Mendialdeko jende gehiagoren interesa piztea, eta plataforman parte hartzeko prest dauden lagun gehiago bildu dira ekimenera.

Halaber, ibilbide-orri bat zehaztu dute proiektua aurrera ateratzeko. Hartara, asteburu honetan

bertan Eusko Jaurlaritzak industria-turismoa sustatzeko antolatutuen Industrialdia ekimenean parte hartu dute, eta Gipuzkoako Mutiloa herrian izan dira Atauriko bizilagunak bertako burdin-meatzaren paisaia ezagutzeko.

Dokumentazioa eta hitzaldiak

Halaber, asfalto-meategiari buruz idatzi duten esparru desberdinetako adituekin (geologoak, arkitektoak...) harremanetan jarri dira plataformako lagunak, eta haiekin elkarrizketak egiten ari dira ahal duten dokumentazio guztia jasotzeko.

Era berean, hurrengo asteetan Mendialdeko Kuadrillako talde politiko guztiekin bilerak egin nahi dituzte Atauriko meategiaren proiektuari buruz ganoraz hitz egiteko, eta aurrerago Arabako Batzar Nagusietako taldeekin ere bilduko dira, "elkarlana sustatzeko asmoz".

Azkenik, Gabonen ostean plataformaren aurkezpen ofiziala egin nahi dute, eta urte berriarekin batera, meategiaren eremura bisita bat eta hitzaldi sorta bat antolatzea ere aurreikusi dute atauriarrek.



Grebara joko du Biocompostek

FCCK eta Ferrovialek ez dute Gasteizko hiri hondakin solidoen plantako lan hitzarmena bete; besteak beste, urtean 188 ordu gehiago lan egiten du behargin bakoitzak Jundizeko lantegian.

ERREDAKZIOA GASTEIZ

Hamabi urte daramate Biocompost enpresako langileek Jundizeko hiri hondakin solidoen planta kudeatzen. Aurten jakin dute enpresak ez dituela plantaren ustiaketarako lehiaketan eskainitako lan-baldintzak bete. Hala ere, esleipen kontratuan zehaztutako kanon ekonomikoa jaso dute Gasteizko Udaletik; hain zuzen ere, urtean zortzi milioi euro jaso dituzte. Gauzak horrela, bidezko lan hitzarmen baten alde greba mugagabea egitea erabaki dute langileek, datorren abenduaren 26tik aurrera.

Aldi Baterako Enpresa Elkartea erdibana osatzen dute Ferrovialek eta FCCK. LAB sindikatuak salatu duenez, 2006an bere jarduera hasi zuenetik, enpresak unilateralki ezarri die langileei Hondakinak Berreskuratze Estatu Mailako

"BIDEZKO" LAN HITZARMEN BATEN ALDE, GREBA MUGAGABEA HASI DUTE LANGILEEK

Hitzarmena, Gardelegiko zabor-tegiko hitzarmeneko baldintzak ezarri beharrean. Hortaz, besteak beste, urteko 188 ordu gehiago lan egin ditu langile bakoitzak, %12 gehiago.

Murritzeta

Halaber, sindikatuek jakinarazi dutenez, enpresak Udaletik jasotzen duen kanonaren %22,5a langile-gastuetara bideratu behar luke, baina hamabi urte hauetan 2,5 milioi euroko murritzeta egin dute atal horretan. Hala, LABek nabarmendu duenez, langileen erdiek baino gehiagok 900 euroko soldata jasotzen dute, "zaborrekin harreman zuzena duen lan neketsu batengatik".

Aniztasun funtzionala duten langileen enplegarritasun ratioak, familia-baimenak, norbere kontuetarako egunak, lanpostua gordeta egindako eszedentziak, erretiroagatik primak eta beste hainbat eskubide ere ez dira betetzen ari, nabarmendu dutenez, eta greba mugagabea egitera deitu dituzte langileak.



Protestak hasi dira Arabako hiri hondakin planta kudeatzen duen enpresan. LAB



"Sisteman arrakala sortzeko", Talka

Emakume talde batek Gasteizko Alde Zaharreko Alava-Velasco jauregia okupatu du, bertan Talka izeneko espazio feminista sortzeko. "Gorputzak, bizipenak, borrokak, zalantzak eta harremanak" lehen plano batean jarri nahi dituzte ekimen berriarekin, sistemari "gerra" deklaratuaz. **Argazkia: Talka. —**

BIDE ZUZENAK IBILBIDE OKERRAK

LGTBQ MUGIMENDUA GASTEIZEN 1993-2018

DOKUMENTALA

**ABENDUAK 28 OSTIRALA
18,30ETAN JIMMY JAZZ**



ESANAK



ENEKO LLANOS
TRIATLETA

"Babesle onak lortzea gero eta zailagoa da; zorionez ni orain arte ezin naiz kexatu"



LEIRE ZUGAZUA
GASTEIZKO SINDIKOA

"Itxi gabe dugu oraindik udaltzainen arretazko grebaren auzia"



ENRIKE RUIZ DE GORDOA
KULTURGILEA

"Principalarentzat oparirik onena arte eszenikoaren espazio berri bat litzateke"

ZENBAKITAN

Urteurrena

Gasteizko tranbiaren

hamargarren urteurrena ospatzeko hainbat ekitaldi antolatu ditu Euskotrenek. Aste honetan bertan Europa jauregian, tranbiaren lehena, oraina eta geroa jorratu duen topaketa bat antolatu dute, eta hil osoan zehar erakusketa bat izango da ikusgai jauregiaren kanpoaldean.

Euskotrenek gogoratu duenez, 2008ko abenduaren 23an, tranbia Ibaiondoko garajetik atera zen bere lehen bidaia egiteko Angulemara, bi urte eta erdi baino gehiago obretan egon ondoren. 2019an tranbia hegoaldera zabalduko da eta zazpi moduluko unitateak gehituko dira.

10

30.000

Txartelak

San Anton eguneko

zozketarako txartelak erosteko aukera dago honako lekuetan: Laboral Kutxako bulegoetan, gizarte etxeetan, San Prudentzio egoitzan, Elikagai azokan, La Union tabernan, La Peña Dulce gozotegian eta Abendaño dastategian. Halaber, San Anton postua egongo da Urrezko Zeledonon plazan, urtarilaren 10etik 17ra bitartean, goizez eta arratsaldez. Txartelak 0,60 euro balioa du, eta zozketa urtarilaren 17an egingo da.

500

Tona

Biomasa estrategia bat

onartu du Gasteizko Udalak, mendi publikoen baso-biomasaren energia bertan aprobetxatzeko, "klimatek aldaketarekiko egokitzapena, energia-eraginkortasuna eta basoen kudeaketa iraunkorra irizpidetzat hartuta". Epe luzerako planaren barruan Udalak sustatuko duen lehen neurria proiektu pilotu bat izango da, 500 tona baso-biomasaren errendimendua Gasteizko udalerriko galdaretan probatzeko.

Forondako aireportua 24 ordutik irekiko dute apiriletik aurrera

Apirilaren 25etik aurrera Forondako aireportua 24 ordutik irekiko dutela berretsi du Espainiako aireportuen kudeaketaz arduratzeko Aenak. Urrian iragarri zuen enpresako kontseilari nagusi Jaime Garcia-Legazek prozedura abiatuko zutela 24 ordutik martxan egoteko. Forondako aireportuak 2012ko abuztuan murriztu zuen bere ordutegia.



Forondako aireportuak egunean 12 ordutik funtzionatzen du orain. ALEA



Pintadak etxean. ORAIN AMURRIO

Orain Amurrioko zinegotzi baten kontra pintadak salatu dituzte

Maria Jose Garcia Orain Amurrioko zinegotziaren eta bere senideen autoetan eta etxean ezezagunek eginiko pintadak gaitzetsi dituzte Amurrioko Udalak eta udal taldeek. Monarkia amaitu behar dela aldarrikatuz duela gutxi Orain Amurrio taldeak aurkeztu zuen mozioarekin lotu dute joan den ostiralean jazotako ekintza bandalikoak.

Arriolabengoa eta Sanz, Arabako binakako pilota txapeldun

Arabako pilota txapelketako finalak jokatu dira asteburuan Gasteizko Ogeta pilotalekuan, eta gizonetako kadete mailan, Markel Arriolabengoa aramaiorak eta Mikel Sanz gasteiztarak jantzi dute txapela, Aitor Arauzo eta Mikel Jimenez bikoteari nagusitu ostean (22-16). Partidua estu joan da, baina bukaeran Arriolabengoak eta Sanzek irabazi dute.

RPS 84/14

FARMACIA
+ +
PUENTE
1.826

San Frantzisko Kalea, 21 Gasteiz
www.farmaciapuente.com

Confecciones Pinedo, S.L.

Euskal Jantziak

San Antonio, 11
Heraclio Fournier, 15
GASTEIZ



www.confeccionespinedo.com

Haurrentzat ere ariketa fisikoa

Gasteizko Hegoalde gizarte etxeak itxura aldatuko du abenduaren 26tik urtarrilaren 4ra. Eguberriko haur parkea dela eta, 'Olympic Vitoria-Gasteiz' bihurtuko da; kirola du ardatz aurtengo edizioak.

MIRIAN BITERI

Zer egin egunotan umeeekin? Hori da guraso askok bere buruari egiten dioten galdera. Eskaintza amaigabea da. Abenduaren 26tik urtarrilaren 6ra bitartean, etxeko txikiei zuzendutako askotariko egitarauak prestatu dituzte herri askotan; eta ekintzen artean, Gasteizko haur-parkea dago.

Aurten ere, Hegoalde gizarte etxean egingo dute, asteartetik urtarrilaren 4ra bitartean. Gasteiz kirolaren hiriburua izateko ahalegin horretan, kirolaren berezko balioak landuko dituzte bertan, hala nola, ahalegina, adiskidetasuna, inklusibitatea edo berdintasuna. Ariketa fisikoarekin lotutako ekintzak aurreikusi dituzte; tartean, ginkana olinpikoa.

Familia osoarentzako askotariko jarduerak izango ditu eta horiek gizarte etxe gehiena eta kanpoaldea jartuko dituzte. Barruan, kantxa nagusiaz gain, Jesus Ibañez de Matauco antzokia, igerilekua, elkartze-aretoa, tiro-gela, gimnasioa, tailerrak, erakusketa

GUZTIRA, ASKOTARIKO 31 JARDUERA ETA 8 IKUSKIZUN IZANGO DIRA GIZARTE ETXEAN ZEIN KANPOALDEAN

ABENDUAREN 28KO ARRATSALDEAN ODOLA EMAN AHAL IZATEKO AUTOBUSA EGONGO DA INGURUAN

aretoa eta familientzako liburutegia ere erabili egingo dira.

Orotara, 31 jarduera

Kanpoaldean, aerogiroa jarriko da, jauzietarako bigarren gunea bat eta baita suhiltzaileen kamioi bat ere; sotoak multimedia jarduerak, scalextric, cockpit eta errealitate birtualaren gunea hartuko ditu; kantxak rappela, ohe elastikoak, baserri txirrista eta jarduera ezberdinetarako hainbat pista; tiro-gelan mini

golfa izango da eta elkartze aretoan, besteak beste, txiki trena, psikomotrizitate gunea, eskulanak eta kirol mundua.

Lehenengo solairuan, berdintasun, birziklapen, aurpegia margotzeko, aniztasun eta sukaldaritza tailerrarekin batera, KZgunea izango dute eskura; eta bigarren solairuan, besteak beste, saskibaloia, futbol zelaia eta multimedia jarduera gehiago.

Igerilekuan, azkenik, zortzi urtetik gorako haurrak baino ezin izango dira sartu; txirrista handia, piraguak eta txalupan eginiko ibilaldia izango dituzte gertu.

Euskaraz eta ingelesez

Ohikoa den moduan, ez dira ikuskizunak faltako gizarte etxeko antzokian; abenduaren 29ko *Story Telling* izeneko ingelesezko emanaldia izan ezik, gainerako beste zazpiak euskaraz izango dira, 18:00etan.

Bestalde, Gasteizko Udalak iragarri du abenduaren 28an odola emateko autobusa egongo dela kanpoaldean, 16:15etik 20:00etara bitartean.



ERROTA
HORTZ KLINIKA
CLINICA DENTAL

Julián de Apraiz, 1
01012 VITORIA-GASTEIZ



Primeran pasatuko dute etxeko txikiak Hegoaldeko parkean. GASTEIZKO UDALA

2,5 eta 3 euro artean

Haur parkearen prezioari dagokionez, ordutegiaren arabera izango da. Goizean joaten diren umeei 2,5 euro ordaindu beharko dituzte sarrera bakoitzeko; eta arratsaldekoek, oster, 3 euro. 14 urtetik gorako laguntzaileak,

bestalde, euro baten truke sartu ahalko dira udal instalazioetan.

Gasteizko Udalak jakinarazi du parkearen kudeaketaz arduratzen den enpresak webgune bat duela interesa duen edozeinek sarrerak aldeztu aurretik erosi ahal izateko:

www.eventos.grupodisport.es. Gaineratu du Internetetik erosten diren sarrerek, sartzeko orduan, lehentasuna izango dutela leihatilan erositakoek aurretik; leihatila eta informazio-lekua gizarte etxearen kanpoaldean jarriko direla ere adierazi du. ■■■



"Gazteak haien aisialdiaz hitz egiten jasotzen ari gara"

AINTZANE AGIRREBEÑA AHOTSAK PROIEKTUKO KIDEA



Aintzane Agirrebeña filologoa eta Ahotsak ekimeneko kidea elkarrizketatu du ALEA FM saioak. ZUZEU

E. UGARTE/ M. UGARTE

Herriz herri, Euskal Herriko ahozko ondarea jaso, gorde eta ezagutarazteko lana egiten du Ahotsak proiektuak. Dozenaka herri bisitatu dituzte, edadeko lagunen kontuak jaso, eta grabazio zaharrak berreskuratu dituzte, gero aztertu ahal izateko. Arabako hamaika lagunen solasaldiak ere jaso dituzte; tartean, Aramaio, Oion, Gasteiz edota Laudio ingurukoak. Proiektua hobeto ezagutzeko Ahotsak ekimeneko kidea den Aintzane Agirrebeña filologoa (Eibar, 1981) elkarrizketatu dute ALEA FM irrati saioan.

Noiz hasi zen ahotsak batzeko lana?

Duela hamabost urte hasi zen proiektua, eta orduan hasi ginen elkarrizketa berriak egiten eta grabazio zaharrak jasotzen.

Edadeko lagunak batetik, baina gazteekin ere hainbat grabazio egin dituzue.

Gazteena proiektu berriagoa da. Beti komentatzen ziguten zergatik ez genituen eredu diren gazteak elkarrizketatzen, eta duela urte batzuk hasi ginen ere proiektu horrekin.

Zer profil dute gazteak?

Denetarik dago, batzuk euskaldun zaharrak dira, beste batzuk euskaldun berriak. Nahi

genuena zen gazteak haien aisialdiaz hitz egiten jasotzea; zaletasun ezberdinetako gazteak aurkitu nahi genituen eta bakoitzak bere zaletasun horretaz hitz egiten jasotzea. Bestalde, beti galdetzen diegu bere hizkuntz ohituren eta euskararen inguruan. Batez ere aniztasuna nahi genuen, eta gehienbat bideoak sortzeko materiala lortzea eta euskaraz izatea material hori. Zenbaitetan zaletasun batzuekin lotzen den hizkuntza gaztelania da, zaletasun edo kirol zehatz batzuekin agian joera dago gaztelaniara jotzeko; eta gure helburua zen zaletasun horren inguruko bideoak,

gazteak hizketan jasotzen dituztenak, euskaraz izatea.

Euskararen alde egindako lanagatik, Gipuzkoako Aldundiak banatzen duen Anton Abbadia saria jaso berri duzue. Zorionak!

Oso pozik jaso dugu, horrek indarra ematen digulako aurrera egiteko, eta errekonozimendu hori jasotzeak egiten ari garen lanaren balioa ezagutzera ematen duelako.

Zertan zabilazte orain? Zein izan da egin duzuen azkeneko elkarrizketa?

Elkarrizketak egiten jarraitzen dugu urtero, baina azken urteetan gehien bat lanketarekin ari gara. Elkarrizketa asko ditugu jasota eta urrats inportantea da horiek lantzea eta erabilgarri jartzea interneten. Azkenengo urteetan horri eman diogu garrantzi

handiagoa, eta horretan ari gara. Gainera, urte askotako lana izango da, grabatutako guztiaren erdia inguru bakarrik dagoelako landuta.

Elkarrizketak entzun, laburpenak egin, gai-kodea jarri.... Lanketarekin batera, azken urteetan ere hedapenari eman diogu garrantzia. Saiatzen gara materiala erabilgarri egiten, jendeak erabiltzea da gure helburua. Hezkuntzarako ere prestatzen ari gara gure materiala, hezkuntzan erabilgarria izatea nahi dugu.

Arabian hutsuneak daude oraindik. Hainbat zonaldean ahotsak falta dira.

Hasiera batean, orain dela hamabi urte, euskalkiak jasotzen hasi ginen, eta orduan Arabian jaso ziren herriak ziren oraindik bertako euskalkia

bizirik zeuden herriak. Gerora, Gasteizko Ahotsak proiektua egin genuen, *crowdfunding* bitartez batu genuen dirua hori egiteko; izan ere, jasotzea nahi genuen euskalkia soilik ez, baizik eta euskara oso bizirik dagoen tokia ere, eta horregatik sortu genuen proiektua. Beste herri batzuetara ez gara iritsi oraindik.

Interesa dutenek proiektuan parte hartu dezakete, ezta? Nola?

Ahotsak.eus webgunean bertan jartzen du lagundu nahi duenak aukera duela, eta era askotan egin daitekeela. Batzuek transkripzioak egiten dituzte etxetik; edo norbaitek bere kontura elkarrizketak egin nahi baldin baditu bidali dezake eta gero guk katalogatu egiten ditugu, beti ere aipatuz nork egin duen eta zer proiekturen barruan. ■

ZURE BIDE LAGUN
PODER SINDICAL PARA UN NUEVO TIEMPO

hauteskunde sindikalak 2018/2022

ERALDA TZAILEA SOLIDA RIOA E K I N TZAILEA ERAGIN KORRA LAB

Besteen faltak aurrean

SEXUALITATEA



EMAIZE

SEXOLOGIA ZENTROA

Gazteen harreman erotikoen inguruko datuen ikerketak erraz aurki ditzakegu. Lehen koitorako adina, hauen maiztasuna eta horren bitartez lortutako asetze maila neurtzen dira batik bat. Galdeketa erabat koitozentristak dira, desioak, bakoitzaren berezitasunak eta bestelako joko erotikoa aintzat hartzen ez dituztenak. Horietan erreparatuz gero "aurretikoak" bezala agertuko dira. "Aurre" aurrizkiak "lehen" esan nahi du, beraz egin ditzakegun bestelako jokoan inguruan galdetuko balute, koitoa aurreko beroketa ariketa gisa litzateke.

Ikerketa hauen emaitzak baloratzeko solasaldietan interpretazio bitxiak egiten dira: "gazteek koitoari garrantzia gehiegi ematen diete", "kopurua kalitatea baino gehiago baloratzen dute", "gero eta lehenago hasten dira", "uste baino gutxiago aldatu da gai honetan"...

Hau zalantzan jarri behar dugu, neurri batean behintzat. Gazteekin egunero sexualitateaz eta erotikaz gabilztanok, lehen koitoaren aurreko espektatibak eta beldurrak azalarazten ditugu, bestelako jokoan inguruko hausnarketa errazten dugu, gizarteak bere gain egiten duen presioaren pisua eta nola aurre egin, besteengandik jasotzen duten eredia lantzen dugu beraiekin, besteak beste. Eta



PIXABAY

beraien desioak eta nahiak gizarteak eskatzen dienarekin bat ez datozela ikusten dugu askotan. Bai, hala da, beste pertsonekin harremanak izateko gogoa izan dezakete, baina agian ez besteek espero duten adinean edo moduan. Eta hemen dago kokxa!

Zerk eramaten ditu gazteak koitoari eta "birjinitatea galdu" beharrari ematen dioten garrantzia ematera eta ez bere gogo eta desioei jarraikiz aritzera? Zergatik zenbatzen dituzte beraien harremanak trofeoak balira? Zergatik begiratzen diote erlojuari zenbat minutu iraun duten jakiteko gozamenaz egon diren

**ZERK ERAMATEN DITU
GAZTEAK KOITOARI
EMATEN DIOTEN
GARRANTZIA
EMATERA?**

kontuan hartu ordez? Zergatik egiten dituzte "aurretikoak" eta ez elkarrekin jolastu?

Nahaspila honetatik ateratzea uste baino errazagoa da. Helduok erotika eredu zorrotza dugu gurean eta galdeketa helduok prestatzen ditugu guretzako garrantzitsuak diren "itemak" jarri; horiei erantzuten diete besterik ez zaielako galdetu. Gazteei zuzenduriko komunikabide, etxe eta ikastetxetako heziketa, tailerrak eta bestelakoak helduok zuzentzen ditugu eta ezinbestean gure eredia transmititzen dugu; hortaz, hain harrigarria iruditzen zaigun gazteen erotika hori, gure erotikaren isla hutsa da. Erantzun ditzagun hauek ba!

Helduok koitoari bestelako praktikei baino garrantzia gehiago ematen diogu? Kopurua aintzat hartzen dugu? Eta maiztasuna? Gure ligeak zenbatzen ditugu? Koitoen luzapena erlojuari begiratzen dugu? Orgasmoak ezinbestek zaizkigu? "Aurretikoak" edo joko erotikoa egiten ditugu?...

Bai andere-jaunak, hauxe da heldu askoren eredia. Koitoa praktika nagusizat dugu eta orgasmoa bertan lortu behar den ideala. Beste guztia horren inguruan antolatzen dugu gure bizipen erotikoa mugatuz eta gazteei hori transmititzen.

Zelan erdigunean eta protagonista paperean gozamina jarriko bagenu? ■■■

Denda txikiei babesa

TEKNOLOGIA



ARRATE SANCHEZ

OREKA IT

Kaleak mota guztietako argiekin apaindu dira. Ez dago zalantzarik: Gabonak hemen dira. Ostiral Beltza baliatu genuen askok egin beharreko opariak erosteko. Eta Gabonetako jaiak erosteko eta kontsumitzeko datarik garrantzitsuenak bihurtu dira, bai oparietan zein janarian dirutza mordoa inbertituz.

Gabonetan ematen den kontsumismo masiboaren kontrako iritzi asko daude, eta egia da fenomeno erreala dela, baina beste alde batetik, dendentzako urrezko datak dira. Saltoki askotarako salmenta sasoi garrantzitsuenak da, hurrengo hilabeteko joera definituko duena. Beraz, erosketa masiboaren arazoa erreala eta ulergarria bada ere, dendari txikientzat guztiz beharrezkoa da, baita ere. Kontsumitzaile bezala gogoeta hau egin beharko genuke: eta jaiegun hauek nire inguruko saltzaile lokalei laguntzeko momentu bilakatzen badituz?

Ohikoa da aste hauetan saltoki-gune handiak jendez gainezka ikustea, poltsa



PIXABAY

ikaragarriekin. Denda kopuru handiak pilatzen dira esparru hauetan, aparkalekua eta tabernak eskaintzen dituztenak. Baina, tamalez, leku hauetan multinazionalak eta denda-kate handiak

**EROSLEEK ESKUBIDE
ASKO DITUGU, ETA
HAUEN TRUKE ZENBAIT
ERANTZUKIZUN HARTU
BEHAR GENUKE**

aurkitzen dira normalean. Non geratzen dira saltoki tradizionalak? Hirietan eta herrietan betidanik lan egin duten saltzaileak? Ez al da sasoi paregabea haien atea jotzeko?

Gabonak zoriontasuna eta elkarlana ospatzeko jaiak dira, eta erosle bezala gure inguruan dauden ekintzaileen lana aintzat hartzeko momentu paregabea ere. Gure kaleei bizia ematen dieten lokalak laguntzeko momentua da. Agian egun hauetan egiten ditugun erosketei esker, saltoki horri beste urte bateko biziraupena ematen ari diogu. Merkataritza-gune handien aurkako lehian galtzen daude, eta gure hiri edo herriko funtsezko elementuak dira, lanpostuak sortzen baitituzte. Erosleek eskubide asko ditugu, eta hauen truke zenbait erantzukizun hartu beharko genituzke, adibidez, opariak erosten ditugun dendei dagokionez. Uste dugun baino botere gehiago dugu, eta hartutako erabakiek uste baino oihartzun handiagoa dute gure ingurunean bizi eta lan egiten dutenen artean. ■



oreka i.t.
corporate balance

INFORMATIKA ZERBITZUAK ETA SAP NEGOZIO-SOLUZIOAK

ZORIONAK ETA URTE BERRI ON!

www.orekait.com

Hitz egin dezagun!

945 067 219

orekait@orekait.com








Izan zaitez ALEAkide

Astero-astero gertuko Araban gertatzen denaren berri ematen du ALEA aldizkariak, eta alea.eus webguneak sarean. Komunikabide arabarra, hurbilekoa eta euskalduna. Zuk ere ALEAkide izan nahi al duzu?



Etxean jaso

ALEA aldizkaria ostiralero etxean jaso nahi baduzu, egin zaitez harpideduna urtean 55 euroren truke. Oso erraza da: interneten bertan egin dezakezu: **www.alea.eus/aleakideak** webgunean. Emailaz nahiago baduzu, idatziguzu **harpidetzak@alea.eus** helbidera. Telefonoz ere aurkituko gaituzu: 945-71 60 09.



Erabili

Bidali lagunentzat zorion-mezuak, parte hartu zozketetan, eman zure inguruan gertatzen denaren berri, argitaratu zure argazkiak, egin iruzkinak... Erabili ALEAk ematen dizkizun aukerak! Egin zaitez *Alea.eus* webguneko erabiltzaile edo **erredakzioa@alea.eus** helbidera idatziguzu. Zure ahotsa entzun nahi dugu.



Zabaldu

ALEA zabaltzen zure harri-koskorra jarri nahi al duzu? Zure ezagunen artean harpidetzaren berri eman, elkarbanatu edukiak sarean, banatu ale bereziak zure inguruan (guk emango dizkizugu), edota antolatu ALEAren inguruko saio bat gurekin batera zure lantokian edo herrian. Araban euskarazko kazetaritzaren alde... **jar ezazu zure alea!!**



945 25 38 94
info@iparmotor.com
Leon Kalea, 01003 Vitoria-Gasteiz

Ipar Motor
gasteiz

Zure kotxea
negurako
prest?

PARTE HARTU www.alea.eus/zozetak



ALEA aldizkariaren harpidetza

Urte oso baterako, 3 harpidetza

Astero aldizkaria zure etxean jaso nahi al duzu eta oraindik ez duzu harpidetzarik egin? Edo dagoeneko harpideduna zara eta zure inguruko norbaiti harpidetza oparitu nahi al diozu? Laboral Kutxari esker, urte oso baterako doako harpidetza irabazteko aukera daukazu. Eman izena urtarilaren 9a baino lehen, eta urtarilaren 11ko aldizkarian ezagutaraziko ditugu irabazleen izenak.



Babestu Arabako euskarazko kazetaritza, eta jaso ALEA astero zure etxean (55 euro urtean).

alea.eus/harpidetzak

Harpidedunentzat mezua

Gabonetako opor egunak direla eta, datozen asteetan ez da aldizkaririk argitaratuko.

Hurrengo zenbakia urtarilaren 11n izango duzue esku artean.

Urte berri on!



Serigrafia
Tanpografia
Inprimatze digitala
Enpresa opariak

Eskaintza bereziak

Avda. del Cantabrico 12, Pab 26 / 01013 Vitoria-Gasteiz
Tel: 945 25 49 32 / Email: info@impresion-arte.com
www.serigrafia-impresionarte.es

AGENDA

Abenduaren 21etik urtarrilaren 10era

Euskararen agenda

MUSIKA

GASTEIZ Mushkum

Baratza aretoaren bosgarren urteurreneko ospakizunen artean.
Larunbata 22, 20:00etan, Baratza aretoan.

GASTEIZ Su Ta Gar

Larunbata 22, 20:30ean, Jimmy Jazz aretoan.

GASTEIZ Xarpa

Orri Berdea eta Berserk taldearekin batera.
Larunbata 22, 21:30ean, Urban Concept aretoan.

GASTEIZ Montauk

Kontzertua 360ºtan.
Igandea 23, 21:00etan, Oihaneder Euskararen Etxean.

GASTEIZ Ruper Ordorika eta Rafa Rueda

Osteguna 27, 21:00etan, Jimmy Jazz aretoan.

ANTZERKIA

GASTEIZ 'Inor ez dator'

Amaia Irazabal aktorearekin. 150gr. arte eszenikoen jaialdiaren barruan.
Asteazkena 26, 18:30ean, Gorbeia kaleko azokan.

BERTSOLARITZA

ARAMAIO Bertso saioa

Gabonetako jaialdia. Andere Arriolabengoa, Sustrai Colina, Amets



ATX TEATROA

GASTEIZ 'Bihotz salataria' ikuskizuna

Iñaki Ziarrusta aktorearekin. Jardunaldi Monstrekoen barruan.
Asteazkena 26, 21:00etan, Monstreka aretoan.

Arzallus eta Nerea Ibarzabal bertsolariekin.

Larunbata 29, 19:30ean, kultur etxean.

AMURRIO Bertso jaialdia

Amets Arzallus, Sustrai Colina, Igor Elortza, Beñat Gaztelumendi, Maialen Lujanbio, Jon Maia, Aitor Mendiluze eta Aitor Sarriegi bertsolariekin.
Ostirala 4, 20:00etan, antzokian.

HAURRAK

OKONDO 'Olentzeroren lagunak'

Ipuina.
Ostirala 21, 17:30ean, liburutegian.

OZETA 'Txoriz betetako buruak'

Ipuina eta tailerra.
Ostirala 21, 17:30ean, liburutegian.

GASTEIZ 'Sorgina txirulina'

Erika Likete eta Irune Alfagemerekin.

Ipuin-bilduma baten aurkezpen musikatua.

Ostirala 28, 18:00etan, Oihaneder Euskararen Etxean.

LAUDIO 'Olentzeroren bidaia zoragarriak' antzezlan

Zirka taldearekin. Ondoren, askaria eta eskulanak izango dira.
Larunbata 22, 17:30ean, Lamuza parkeko ludotekan.

ARTZINIEGA 'Ganbaran' ikuskizuna

Igandea 23, 18:00etan, Artziniegako Museon.

GASTEIZ 'Enaren kontuak' ikuskizuna

Enaren istorioekin sortutako antzerki musikatua. 5 urtetik aurrerako haurrentzat. 2Princesesbarbudes taldearekin.
Igandea 30, 18:00etan, Felix Petite antzokian.

GASTEIZ 'Zutuberrak' antzeziana

Eidabe antzerki taldearen eskutik.
7-14 urte bitartean. Ostein, Urban-
Dance emanaldi parte-hartzailea.
Gabonetan Jai zikloa.

*Osteguna 3, 12:00etan, Oihaneder
Euskararen Etxean.*

GASTEIZ 'Ene Kantak' jaialdia

Ene Kantak, besteak beste,
Nafarroako erraldoi eta kilikien zazpi
konpartsatako 32 erraldoiez
lagunduta arituko dira.

*Ostirala 4, 17:00etan, Buesa Arena
pabiloian.*

BESTELAKOAK

AMURRIO 'Eraldaketa, sortzaileon afera' erakusketa

Emakumea, sormena eta euskara
hizpide dituen bilduma.

*Hilaren 21era arte, La Casona udal
erakusketa aretoan.*

GASTEIZ Olentzero eta Mari Domingiren desfilea

Folklore Akademia, Arabako
Dantzarien Biltzarra, Olabide ikastola
eta Indarra taldeetako kideekin batera
egingo dute kalejira.

*Astelehena 24, 18:00etan, Iparralde
gizarte etxetik abiatuta.*

ARAMAIO 'Aramaixoarrak'

Argazki proiektzioa, Alex
Mendikutereren eskutik.

Ostirala 28, 18:30ean, Sastiñan.

GUARDIA Urte bukaerako jaia

Urte bukaera ospatzeko kanpaiak eta
jaialdia. EITBk handik emango du
zuzeneko saioa.

*Hilaren 31n, 23:00etatik aurrera,
plaza nagusian.*



**ZUREKIN
GOAZ**

con todas nuestras fuerzas

ela.eus     #ZurekinGoaz

ELA
EUSKAL SINDIKATUA



**Lizarralde soinua
TXALAPARTA S.L.**

Audio Profesionala, Megafonia

www.lizarraldesoinua-txalaparta.eus
txala@txala.euskalnet.net
945 22 69 77
GASTEIZ

 zerbitzu
euskara





Jimmy Jazz Gasteiz **ABENDUA**

Os. 21 DEAD BRONCO + ELLA LA RABIA

Os. 21 GUILLE MILKYWAY (LA CASA AZUL)

+ AXEL PI (SIDONIE) + YAHAIRA


Lr. 22 SU TA GAR + WOOD STRINGS #SOLDOUT

Og. 27 RUPER ORDORIKA + RAFA RUEDA

Os. 28 BIDE ZUZENAK IBILBIDE OKERRAK

WWW.JIMMYJAZZGASTEIZ.COM

GUERE ETXEAN, GEU NAGUSI



**Doitu
zure hipoteka
Kutxabanken
kuota-
doigailuarekin.**

**Produktu komenigarrienak
aukera ditzakezu
(aseguruak, txartelak,
pentsio-planak, nomina
edo pentsio
helbideratuak...) eta
hipotekan aurrezteko
hobariak lor ditzakezu.**

Kutxabank, SA, Kale Nagusia, 30-32, 48009 Bilbo.
IFK: A95463077. Bizkaiko Merkataritza Erregistroan
inskribatuta: 5226. Tombo: 0. Liburu: B8-88729 Orria,
1. Folioa; 1. Inskribazioa.

- ☐ **FINKOA**
- ☐ **MISTOA**
- ☐ **ALDAKORRA**

hipotekak **kutxabank**

